



**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

**Bilboko Udala**

**Bilboko Udaleko plantilako plazak jabetzan betetzeko deialdietako oinarri orokorren aldaketa.**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, Bilboko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 1eko erabakiari buruzkoa, zeinaren bidez onartzen baita Bilboko Udaleko plantilako plazak jabetzan betetzeko deialdietako oinarri orokorren aldaketa.

Bilboko Gobernu Batzordeak honakoa xedatu du 2020ko uztailaren 1eko erabakiaren bidez:

«Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.h) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta aurretik dagoen txostena ikusita, hau

XEDATZEN DA:

**BAT**

Bilboko Udaleko plantilako plazak jabetzan betetzeko deialdietako oinarri orokorretako hamaikagarren oinarriko 2. ataleko f) azpiatala aldatzea.

— *Hauxe esaten denean:*

- «f) Deitutako plazen kopurua gehitu ahal izango da, hautaketa-prozesuan, edozein arrazoigatik, lanposturen bat hutsik geratzen bada eta deialdiko oinarri espezifikoetan hala ezarrita badago. Plaza kopurua alkate-udalburuaren ebazpenaren bidez gehituko da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; horietatik hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plaza zenbat diren adierazi beharko da eta gainditutakoen zerrenda argitaratu aurretik (oinarri honetako 1. puntua) argitaratu beharko da.»

— *Aldaketarekin, honela geratuko da:*

- «f) Deitutako plaza kopurua handitu ahalko da, dagokion deialdiaren ostean onartutako enplegu publikoko eskaintzetan dauden lanpostu hutsen arabera, baldin eta oinarri espezifikoek hala agintzen badute. Plaza kopuruaren gehikuntza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, alkate-udalburuaren ebazpenaren bidez; horietatik hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plaza zenbat diren adierazi beharko da eta gainditutakoen zerrenda argitaratu aurretik (oinarri honetako 1. puntua) argitaratu beharko da.»

Aldaketa hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondoko egunean sartuko da indarrean.

**BI**

Oinarri orokorren testu bategina onartzea, 2020ko uztailaren 1era arte egindako aldaketa guztiekin.

**HIRU**

...»

**BILBOKO UDALEKO LANTALDEKO LANPOSTUAK JABETZAN  
HORNITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK****Bat. — Helburua**

Honako ebazpenaren bidez oinarri orokorrak ezarri dira, Bilbo Udalean deialdi bakoitzaren oinarrietan zehazten diren plazak jabetzan betetzeko hautaketa prozesua arautuko dutenak.

**Bi. — Arau aplikagarriak**

Udaleko lanpostuak hornitzeko hautaketa-prozesuen deialdietan honako legeria aplikatuko da:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.
- Eusko Legebiltzarraren 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzeari buruzkoa.
- Eusko Legebiltzarraren 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- Modu osagarrian, 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazioaren Zerbitzuan Langile izateko, eta Lanpostuen Jabetza eta Lanbidea Sustatzeko Araudi Orokorra onartzen duena.
- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- Oinarri Orokor hauek.
- Deialdi bakoitzerako onartzen diren oinarri espezifikoak.

Horiez gain, hauek:

Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko langileen kasuan:

- Eusko Legebiltzarraren Legea, 1996ko apirilaren 3koa, Larrialdiak Kudeatzeari buruzkoa, bereziki, IV. kapitulua eta laugarren xedapen gehigarria.

Indarrean den arloko araudia, orokorrean, hornitu beharreko lanpostuaren Gorputz eta Eskala edozein dela.

**Hiru. — *Tratu berdintasuna***

Espainiako Konstituzioaren 14. Artikuluak eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onetsi zuen Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6 eta 9 artikuluek ezarritakoaren arabera, deialdietan tratu berdintasunaren printzipioa beteko da eta ezin da inongo bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonalagatik, baldin eta tratu bereizketa kasu justifikatu eta proportzionaletan arrazoitzen duten arauak ez badaude.

**Lau. — *Plazen deskribapena***

Plazen deskribapena prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan egingo da Enpleguaren Eskaintza Publikoa onesten duen ebazpenak edo plangintzarako antzeko tresnaren batek ezartzen duen moduan.

**Bost. — *Hautagaiak bete beharreko baldintzak*****1. *Baldintza orokorrak.***

Deialdietako kidego eta eskalarako hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, ondoko baldintza orokorrak eta oinarri espezifikoetako baldintzak ere bete behar dituzte:

- a) Nazionalitatea: Espainiar nazionalitatea izatea.
  - a.a) Funtzionario sartzeko prozesuetan, espainiarrekin bezalaxe eta baldintza berdinetan honako hauek ere hartu ahal dute parte, botere publikoa baliatzen edo estatu edo herri administrazioetako interes orokorren zaintzan zuzenean edo zeharka parte hartzen dutenek izan ezik:
  - a.b) Europar Batasuneko kide den estatuetako baten nazionalitatea dutenak.
  - a.c) Espainiarren ezkontideak eta Europar Batasuneko kide den estatuetako baten ezkontideak, ezkontidearen nazionalitatea edozein izanik ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, ezkontide bien ondorengoek hartu ahal dute parte baldintza berdinetan, hogeita bat urte-tik beherakoak badira edo bestela, adin horretatik gorakoak izanda egunero bizimoduan besteren laguntza behar badute.
  - a.d) Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunenei jarraiki, a.a) idatz-zatian zehaztu-takoaren arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
- b) Gaitasuna: Bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea eta beren elbarritasun-maila lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko oztopo ez dela egiaztatzea. Hori Udalaren Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute oinarri hauen hamaikagarren oinarrian ezarritakoarekin bat, lan arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden arauak aintzat hartuz, lanaren ondoriozko arriskuetatik babesteko lan-egokitzapenak egin behar badira ere.
- c) Adina:

Hamasei urteak beteta izatea eta derrigorrezko erretiro-adinetik gorakoa ez izatea.

Hala ere, agintea erabiltzea dakarten plazak eskuratzeko edo, Bilboko Udalaren Lan Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuaren iritziz osasunerako arriskutsua den eginkizunen bat burutu behar bada, hamazortzi urteko gutxieneko adina eska daiteke oinarri espezifikoetan.
- d) Gaikuntza: herri administrazioen edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzioan edo estatutarioen zerbitzuetatik diziplina-espediterearen bitartez baztertua ez izatea eta, epailearen erabakiz kargu edo enplegu publikoak burutzeko, ezta funtzionarioa izateko ere, gaitasunik gabe utzia ez izatea.



Beste estatu bateko kide direnei dagokienez, gaitasunik gabe utzita edo antzeko egoeran ez egotea, ezta ere bere estatuan enplegu publikoan sartzearagozten duen diziplina-zigorrik edo baliokiderik izatea.

- e) Titulazioa: deialdiaren lanpostu horretan sartzeko oinarri espezifikokoetan eskatutako titulazio akademikoa edukitzea.  
Atzerrian eskuratutako titulazio akademikoak direnean, euren homologazioa edo baliokidetzat egiaztatzen duen ziurtagiria erantsiko da.
- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute aukera egiteko eragozpenik izango, aipatutako legezko arauetan adierazita dagoen bezala.
- g) Tasak: Bilboko Udalaren dokumentuak egiteko eta emateko zerbitzuaren tasak arautzen dituen indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.
- h) Hautaketa-prozesu bakoitzeko oinarri espezifikokoetan eskatzen diren gainerako baldintza guztiak.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte baldintza guztiak. Era berean, gainerako baldintza guztiak bete behar dira hautaketa-prozesuan zehar izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz b) idatz-zatian ezarritakoa izan ezik; kasu horretan, udalaren zerbitzu medikoek egiaztatu behar dute funtzionario izendatu baino lehen.

Hala ere, hautaketa-prozesuaren eidozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagaien batek deialdiko baldintza guztiak ez dituela betetzen, hautagaia baztertuta utziko du, entzunaldia egin ondoren, eta egun berean horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

## 2. Barne-promozioko txanda.

Barne-promozioko txandarako gorde diren plazetara aurkeztu ahal izateko, hautagaien jardunean edo zerbitzu berezietan egon behar dute eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Bilboko Udaleko karrerako funtzionarioa izatea, lortu nahi duten plazaren beheko sailkapen taldeko edo azpitaldeko, edota talde edo azpitalde bereko plaza jabetzan edukitzea, oinarri berezietan ezarritakoaren arabera.
- b) Bilboko Udaleko karrerako funtzionario moduan urte bi jardun izana lortu nahi den plazarekin zerikusia duen lanpostua betetzen.
- c) Lortu nahi den plazarako eskatzen diren titulazioa eta antzintasuna edukitzea, eta eskatzen diren gainerako baldintzak ere betetzea.

## 3. Minusbaliotasuna duten pertsonen txanda

Minusbaliatuentzako txandan parte hartu ahal izateko, interesdunak minusbaliotasuna aitortua izan beharko du: %33ko edo hortik gorako minusbaliotasuna, Administrazioaren organo eskudunak (Gizarte Segurantzza, Imsero, Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Saila edo baliokideak) emandako egiaztagiri edo ebazpenaren bidez aitortua.

## 4. Parte hartzeko baldintzak

- a) Hautaketa-prozesuan parte hartzea norberak erabakitzen du eta horrek esan nahi du onartu egiten dela proba psikoteknikoak eta nortasunari buruzkoak egitea, proba horiek beharrezkoak badira, bai eta proba horietako emaitzak balorazioan eragina izateko erabiltzea ere, oinarri hauetan ezarritakoarekin bat etorrira.
- b) Izangaiak oinarri hauetan jasotako proba fisikoak egitera aurkeztu badira, euren gain hartuko dute euren osotasun fisikoaren gaineko arduraren guztia, eta proba horietan norbaitek lesiorik izanez gero, Bilboko Udalak eta epaimahaiak ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta interesdunak kontuan hartzeko moduko



zerbait (gaixotasunak, alergiak, haurdunaldia...) Bilboko Udalaren Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren sendagileei jakinarazi ez badie, horrelakoetan Prebentzio Zerbitzuak neurri egokiak hartzen baititu.

5. *Datuen babesa*

- a) Izangaiek oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuetara aurkezteak esan nahi du baimena ematen dutela eskabidean ageri diren datu pertsonalak erabiltzeko (izen-abizenak, NAN eta ikasketak), aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, web gunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bideren bitartez argitaratzeko. Halaber, hautagaiek datuak erabiltzeko baimena ematen dute, HAEEk edo erakunde eskudunak euskararen hizkuntza-eskakizuna edo beste hizkuntzaren baten ezagutza maila egiaztatu dezan, eta, oro har, hautaketa-prozesuari dagozkion ariketak epaimahaiak, erakundeak, enpresak edo epaimahaiak agintzen dionak modu egokian prestatu eta burutzeko direla baieztatuz. Gainera, hautagaiek deialdian ezarritako bazterketa medikoen taulara egokitzen direla ziurtatzeko erabili ahal dira datu pertsonalak.
- b) Hautaketa-prozesuak publizitate printzipioak araututa daude. Ondorioz, izangaiaren eskabiderik ez da onartuko baldin eta ez badu bere datuak lagatzea onesten aurreko paragrafoan adierazitako edukiaz eta helburuetarako.
- c) Honako deialdiaren hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak eratzeari buruzko hamaikagarren oinarriaren ondorioetarako, eskabidean hautagaiek adierazi behar dute euren datuak (izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa eta ikasketak) herri administrazioko beste erakunde batzuei lagatzeko eragozpenen bat duten. Lagapen horren helburu bakarra da erakunde horiek lan eskaintzak legez ezarritako moduan egitea. Datuak lagatzea ez dutela nahi berariaz adierazi ezean, hautagaiek horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.
- d) Izangaiek emandako datu guztiak «Lan-eskaintza» izeneko fitxategi batean sartuko dira, eta haren tratamenduaren arduraduna Bilboko Udaleko Giza Baliabideen Antolaketa eta Kudeaketa Saila izango da.
- e) Interesa duten pertsonak datuak kontsultatu, zuzendu, ezeztatu eta haien tratamenduaren aurka egiteko eskubidea izango dute, idazki bat bidaliz helbide honetara: Bilboko Udaleko Giza Baliabideen Antolaketa eta Kudeaketa Saila, Venezuela Plaza, 2, 5. solairua. 48001-Bilbao.

**Sei. — Eskabideak eta onarpena**

1. *Eskabideak betetzea eta aurkeztea*

- a) Eskabideak deialdian ezartzen den prozedura elektronikoa erabiliz bete eta aurkeztu beharko dira, eta eredu ofizialean, [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) webgunearen bidez edo izangaien izen-emateak izapidetzeko berariaz gaitutako erregistro telematikoen bidez.
- b) Giza Baliabideen Antolaketa eta Kudeaketa Sailak ordenagailuz edo bestelako baliabide teknikoak hornitutako bulego bat edo gehiago jarri ahalko ditu erabiltzaileen eskura, nahi duen orok bertan eskabideak betetzeko, eta zeregin horretan interesdunei aholkularitza eta laguntza eskaintzeko.
- c) Eskabideak Udalbatzako presidenteari zuzenduta aurkeztu beharko dira, hogei (20) eguneko epean, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- d) Eskabideak betetzeko orduan, deialdiaren Oinarri Espezifikoek zehaztutako jarraibideak hartu beharko dira kontuan.
- e) Tasak: Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duen pertsona bakoitzak eskabidea aurkeztearekin batera ordainduko du azterketa-eskubideei dagokien tasa, eta, Tasei eta Prezio Publikoei buruzko 8/1989 Legeko 12. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ez da bidezkoa izango hura itzultzea interesdunari egozte-



koak diren arrazoiengatik. Horrenbestez, baldintzak ez betetzeagatik, prozesua ez gainditzeagatik, edo deialdian eskaturiko dokumentazioa ez aurkezteagatik hautaketa-prozesutik baztertuta geratzeak ez du berekin ekarriko azterketa-eskubideak itzultzea.

Azterketa-eskubideei dagokien diru-sarrera Bilboko Udalaren dokumentuak egiteko eta emateko zerbitzuaren tasak arautzen dituen indarreko ordenantza fiskalak ezarritako moduan egingo da.

Deialdi bakoitzak zehaztuko du azterketa-eskubideei dagokien tasaren zenbatekoa eta ordainketa.

- f) Eskabidea behar den denboran eta moduan aurkezten ez bada, edo ezarritako tasa ordaintzen ez bada, dena delako izangaia hautaketa-prozesutik baztertuko da.
- g) Denborak edo baliabideak egokitzea. Desgaitasuna duten pertsonen erreserbatutako lanpostuetarako izangai direnek jakinarazi beharko dute denborak edo baliabideak egokitzeko beharra duten oposizio-faseko ariketaren bat egiteko, zehazki behar diren egokitzapenak adierazita.
- h) Euskara: Nahitaezko hizkuntza-eskakizunen bat atxikita duten lanpostuak betetzeko euskararen ezagutza-maila, bai agirien bidez bai horretarako egiten den proba gaindituta, egiaztatzen dutenak aipaturiko lanpostu horiek zein izaera horretakoak ez direnak eskuratzeko lehiatuko dira.
- i) Probak egiteko hizkuntza: Eskabidean adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin nahi diren hautaketa-probak (euskaraz edo gaztelaniaz). Ezer adierazi ezean, proba guztiak gaztelaniaz egin nahi direla ulertuko da.
- j) Parte hartzeko txandak. Eskabidean, izangaiek txanda hauetako batean parte hartzeko nahia adierazi beharko dute: a) Txanda irekia, b) Barne-igoerako txanda, eta c) Desgaitasuna duten pertsonak, oinarri espezifikoean ezarritakoaren arabera, eta txanda horietako bakar batean soilik parte hartu ahalko dute.
- k) Eskabidearen oker eta akatsak zuzentzea.

Eskabidean egiteko okerrak, oker materialak zein oker aritmetikoak daudela antzemanaz gero, oker horiek noiznahi zuzendu ahalko dira, ofizioz zein interesdunak hala eskaturik.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eskabideetan akatsen bat egonez gero, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egindakotzat joko dela eta, izapide gehiagorik gabe, artxibatu egingo dela.

## 2. Eskatzaileak onartzea

- a) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, Alkatetza-Presidentetzak onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda horietan izangaien izena eta bi deitura agertuko dira, bai eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia ere.
- b) Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Udalaren ediktu-oholean jarriko da jendaurrean. Bazterketaren aurka erreklamatzeko eta hura eragin duten akatsak zuzentzeko edo agiriak aurkezteko, 10 eguneko epea egongo da. Behin erreklamazioak egiteko epea igarota, izangaien onarpenak eta bazterketak onartu dituen agintaritzak aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi, eta behin-behineko zerrenda bezala jakinaraziko da jendaurrean.



- c) Onartu eta baztertutako en zerrendak onartuko dituen ebazpenaren aurka auke-rako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Udalaren aurrean, hila-beteko epearen barruan, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.
- d) Aurkezturiko errekurtsoa ez bada ebatzi probak egin behar diren egunerako, era-gindako izangaiek, kautelaz, azterketa egin ahalko dute, baina, gero, azterketak ez du baliorik izango, errekurtsoa ezetsi egiten bada.

### 3. *Jakinarazpenak*

Jakinarazpenen ondorioetarako, halakorik eginez gero, eskabidean agertzen den helbidea izango da kontuan hartu beharrekoa, geroago deialdia egin duen organoari beste helbide bat berariaz eta modu fede-emailean jakinarazten zaionean salbu.

### **Zazpi. – Kalifikazio Epaimahaia**

#### 1. *Osaera*

- a) Deialdien hautaketa-prozesuen Kalifikazio Epaimahaiak eratuko dira honako hauetan xedaturikoaren arabera: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegin-tzako Errege Dekretuko 60. artikuluan; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretu-ko 4. artikuluan; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 31. artikuluan; apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 127.1.h) artikuluan, abenduaren 16ko 57/2003 Legean onartutako testuarekin; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeko 20.4 b) artikuluan.
- b) Epaimahaian epaimahaiburu bat, idazkari bat, eta deialdian ezarritako epai-mahaikideak egongo dira, eta epaimahaikide-kopurua ezingo da izan inola ere bost baino gutxiago. Epaimahaia osatzen dutenak nagusiki teknikariak izango dira, eta espezialitatearen printzipioa izango da nagusi. Beraz, kide guztiek deial-diko lanpostuetan eskatzen den titulazio berdina edo maila handiagoko titulazioa izango dute, eta, gutxienez, kideen erdiek hornituko den lanpostuari dagokion ezagutza-arlo bereko titulazioa izan beharko dute, eta, hala ez izatea justifika-turik egon ezean, gizonen zein emakumeen ordezkaria, bakoitzetik, gutxienez %40 izango da.
- c) Euskaraz jakiteari dagokion probarako izendatutako epaimahaikide-postuak on-dorio horietarako baino ez du balioko, berariaz besterik erabaki ezean.
- d) Epaimahaia eratzen denean, b) letran ezarritako baldintzak betetzen baldin badi-tuzte, betiere, kide edo aholkulari gisa desgaitasuna duten pertsonak egon daite-zen saiatuko da, desgaitasuna duten pertsonentzako txanda dagoen deialdietan.
- e) Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak salbu, azken horrek ez baitu botorik izango Epaimahaiaren erabakiak bertan direnen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa izango balitz, epaimahaiburu diharduena-ren botoak erabakiko luke.
- f) Epaimahaiko kideek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Sektore Pu-blikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artiku-luan aurreikusitako zirkunstantzietako bat gertatzen denean, uko egin beharko diote parte hartzeari, eta Udaltzako presidenteari eman beharko diote horren berri. Halaber, izangaiek epaimahaikideak errekusatu egin ahalko dituzte, aipa-turiko legeko 24. artikuluan xedaturikoaren ildotik, aurreko artikuluan aurreikusi-tako zirkunstantziaren bat gertatzen denean.
- g) Ezingo dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hau-taketa-prozesuetarako izangaiek prestatzeko lanetan jardun dutenak edo, aldi horren barruan, deialdiko lanpostuei dagokien funtzio-arlo bereko oposizioak prestatzeko zentzoren batekin batera nolabait lan egin dutenak.



- h) Hautaketa-prozesuan onartutakoen eta prozesutik baztertutakoen zerrendekin batera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda, Alkatetza-Presidentetzak haiek izendatu eta gero.
- i) Kalifikazio Epaimahaiko kideek, egingo duten zerbitzua dela-eta, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko arauetan aurreikusitako legezko kalte-ordainak jasoko dituzte.

## 2. Eraketa

- a) Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun gutxienez epaimahaiburua eta idazkaria (titularrak edo ordezkoak) eta Epaimahaiko gainerako kideetatik erdiak agertu ez badira.
- b) Epaimahaiak lanetara aholkulari espezialistak ere batzea erabaki ahalko du, hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Halakoek beren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeko 31.3 artikuluan xedaturikoari jarraituz, eta aholkua eta laguntza teknikoa beren espezialitatean jardunez emango dituzte, hitzarekin baina botorik gabe.
- c) Epaimahaiburu dihardutenak faltatzekoak direnean, kargu horren titularrak ordezko pertsona bat izendatuko du boto-eskubidea duten epaimahaiakideen artean. Izendapenik egin ez bada, halakoen arteko zaharrena izango da buruaren ordezkoa.
- d) Epaimahaiburutzak hautaketa-prozesua aurrera eramatea koordinatuko du, eta bozketetan berdinketak ebatziko ditu, bere kalitateko botoarekin. Epaimahaiaren kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkari diharduenak salbu, azken horrek hitza izango baitu, baina ez botorik.
- e) Izangai-kopurua dela-eta komenigarria denean, Kalifikazio Epaimahaiak administrazioko eta zerbitzuetako laguntzaileak izendatu ahalko ditu, Idazkaritzak gainbegiraturik, hautaketa-prozesua behar bezala garatzea bermatzeko adinako kopuruan. Zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko arauetan aurreikusitako legezko kalte-ordainak jasoko dituzte.
- f) Epaimahaia osatzen duten kide guztiek, bai eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten aholkulari eta adituek ere, izangaiei zor zaien intimitate-eskubidea eta errespetua bermatuko dute egikaritzen dituzten funtzio guztietan; horrez gain, izangaiei buruzko informazioa modu egokian tratatzeaz arduratuko dira.
- g) Hautaketa-prozesua behar bezala garatze aldera, Epaimahaiak oinarri hautan edo oinarri espezifikoetan aurreikusten ez diren gaien inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izango du, bai interpretazioari eta aplikazioari dagokienez, bai Epaimahaiaren beraren funtzioak egikaritzeari dagokionez. Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko da Alkatetza-Presidentetzaren aurrean, ebazpenean bertan adierazten den epean, iragarki-oholean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- h) Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Epaimahaiaren egoitza Udalaren egungo Erregistro Orokorrean egongo da: Ernesto Ercoreca Plaza 12 48007.

## Zortzi. — Hautaketa-prozedura

### 1. Hautagaiak aukeratzeko prozedura

Hautagaiak aukeratzeko prozedura oposizioa edo lehiaketa-oposizioa izango da eta txanda hauek egongo dira: libre, minusbaliatuentzako txanda eta barne sustapena, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera. Hautaketa-prozesuetan praktikaldia eta prestakuntza-ikastaroa ere egon daitezke, betiere oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera eta arautegi honetan adierazitako iraupenarekin.



**2. Oposizioko fasea**

- a) Oposizioko fasea deialdiko oinarri espezifikoetan adierazten diren ariketek osatuko dute eta eskatuko den arautegia Estatuko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratzen denean indarrean dagoena izango da.
- b) Ariketa teorikoak eta praktikoak egongo dira.
- c) Ariketa batzuk derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira baina borondatezkoak ere egon daitezke, deialdiko oinarri espezifikoetan araututakoaren arabera.
- d) Programak eta gai-zerrendak.
  - d.a) Ariketa teorikoetako programek Toki Administrazioako funtzionarioak aukeratzeko prozedura arautzen duen ekainaren 7ko Errege Dekretuan xedatutakoa beteko dute. Gutxieneko gaiak dekretu horretan jasotakoak izango dira, baina, beharrezkotzat joz gero, gai gehiago sartu ahal izango dira, deitutako plazak betetzeko kualifikazio onena duten hautagaiak aukeratzeko direla bermatzeko.
  - d.b) Deialdiko oinarri espezifikoetan jasotako gaien artean, gutxienez bat Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko Arautegikoa izango da eta beste bat Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Arautegikoa.
- e) Hautaketa-prozesuko proben artean ariketa praktiko bat edo gehiago egongo dira, besteak beste, test psikoteknikoak, mekanografiako probak, testuen tratamendua, txostenak eta proiektuak idaztea, balizko kasuei soluzioa aurkitzea, hizkuntzak neurtzeko probak eta beteko diren lanpostuetarako hautagaien prestakuntza neurtzeko egoki jotzen diren antzeko probak.
- f) Proba fisikoak prestatzeko eta diseinatzeko Udaleko Lan Arriskuen Prebentziarako zerbitzuaren aholkularitza eskatuko da, baita hautagaien eta epaimahaiko kideen edo aholkularien osasunerako eta segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen tresnak edo materialak erabili behar direnean eta lekuari eta denborari lotutako gorabeherak kontuan hartu behar direnean ere.

**3. Lehiaketa Fasea**

- a) Arau orokorrak.
  - a.a) Lehiaketaren fasean, hautagaiek ziurtatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, betiere oposizioaren fasea gainditu badute. Merezimendu bakoitzari deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritako baremoaren araberrako puntuak emango zaizkio.
  - a.b) Hautaketa-prozedura oposizio-lehia-keta denean, lehiaketa-aldian ez da inor prozesutik kanpo utziko eta ez da kontuan hartuko oposizio-aldiko azterketak gainditzeko. Hori horrela da Toki-administrazioetako funtzionarioak hautatzeko prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4.c.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.
  - a.c) Lehiaketa-aldiko puntuazioa, gehienez ere, oposizio-aldian lor daitekeen gehieneko puntuazioaren %45 (ehuneko berrogeita bost) izango da, hala xe baitago jasota Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 26. artikuluan.
  - a.d) Hautagaiek aurkeztutako merezi-menduak ebaluatu eta argitaratuko ditu epaimahaiak deialdiko oinarri espezifikoetan ezarritako epearen barruan.
- b) Lehiaketa-aldian merezimendu hauek balioetsiko dira:
  - b.a) Lan esperientzia: herri-administrazioako lanpostuak bete izana (horien ezaugarriak eta balorazioa oinarri espezifikoetan zehaztutakoak izango dira); atal honetan ez dira inolaz ere balioetsiko, zerbitzu zibilak edo merkataritzako zerbitzuak emateko kontratuak, ezta bekak eta laneko praktikiak ere.

Oro har, lan esperientzia Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 2. artikuluan herri-administrazioetat jotzen diren erakundeetan egindakoa



izango da eta hura egiaztatzeko, eskumeneko organoak egindako ziurtagiria aurkeztuko da.

Hala ere, salbuespen moduan eta horretarako inguruabarrak daudenean, enpresa publikoetan emandako zerbitzuak ere sartu ahal izango dira deialdiko oinarri espezifikoeetan, oinarriotan adierazitako eran eta horko baldintzak betez.

Ez dira balioetsiko lan esperientziarekin zerikusia duten merezimenduak, ondokoak beren-beregi adierazita ez badaude:

- Betetzen ari den lanpostuaren izena eta kategoria profesionala.
- Kontratazioaren hasierako eta amaierako egunak edo izendapenaren eguna.
- Lanpostuaren eginkizun nagusiak, kategoria adierazita eginkizunok argi ez badaude.

Deialdiaren oinarri espezifikoeetan adierazitako dataren edo daten aurreko epealdiak soilik zenbatuko dira; dena dela, ezingo dira inola ere zenbatu eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean emandako zerbitzuak. Zenbaketa egiteko, zerbitzua lanaldi arruntean eman baldin bada, erabili beharreko formula izango da lan egindako urte osoa 365 egunekotzat eta lan egindako hilabete osoa 30 egunekotzat jotzen dituen. Lanaldi partzialean edota lanaldi murriztuan jardun izan dutenen kasuan, zerbitzua benetan emandako lanaldiarekiko era proportzionalean egingo da zenbaketa, eta, araudiak ahalbidetzen baldin badu, lanaldi-murrizketa bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak aplikatzearen ondorioz onartu denean, neurri horien onuradunari lanaldi osoz jardun izan balu bezala zenbatuko zaio denbora.

- b.b) Prestakuntza: Balioztatu egingo da deialdiko lanpostuen funtzioei lotutako ezagutzak edukitzea, behar bezala egiaztatutakoak, baldin eta dena delako hautaketa-prozesuan onartua izateko gutxienez eskatzen direnek baino maila handiagoa edo arlo zabalagoa hartzen badute. Oinarri espezifikoeetan ezarriko dira atal hau balioztatzeke baldintza zehatzak, baina, edonola ere, titulazioak eta prestakuntza balioztatzeke, eskabidean datu hauek adierazi beharko dira:

- Tituluaren eta/edo prestakuntza-ikastaroen izen ofiziala.
- Egiaztatzea eman duen erakundearen izena.
- Ikastaroaren ordu-kopurua.

Ez dira balioztatuko ikasketa-titulu bat lortzeko plangintzaren barruko ikastaroak; dena dela, titulu hori balioztatu egin ahalko da, dagozkion oinarri espezifikoeetan hala jasotzen bada.

- b.c) Euskara: Euskararen ezagutzak merezimendu moduan balioetsi ahal izateko, lanpostuak derrigortasun egunik gabeko hizkuntza-eskakizuna eduki behar du, edota eskabideak aurkezteko azken egunean lanpostu horren derrigortasun-eguna oraindik heldu barik badago. Lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizunaren goragoko mailako eskakizunik ez da balioetsiko.

Euskararen ezagutzari emango zaion portzentajea ez da izango gainerako hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez lor daitekeen puntuazioaren %5 baino txikiagoa eta %20 baino handiagoa. Hori horrela da Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 98. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Hauek izango dira, hain zuzen ere, portzentaje zehatzak: lanpostuak 1. edo 2. hizkuntza-eskakizuna duenean, %5 eta %10 bitartean eta 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna duenean, %11 eta 20 bitartean.



- b.d) Beste hizkuntza batzuk: Deialdiaren oinarri espezifikoean ezarritakoaren arabera, Estatu Espainiarreko edo Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizial batzuk ere balioetsi ahal izango dira.
  - b.e) Beste batzuk: Aurreko ataletan jaso ez diren merezimenduak ere balioetsi ahal izango dira, betiere deialdiaren oinarri espezifikoean zehaztutako baldintzetan eta norainokoa.
4. *Euskarazko nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak*
- a) Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeak lehentasuna izango du; hartara, karrerako funtzionario izateko proposaturiko izangaiekin beteko dira, kalifikazio onenak eskuratu eta eskaturiko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ondoren.
  - b) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak bete nahi dituzten hautagaiek, baldin eta hizkuntza-eskakizuna ziurtatzen ez badute edota euskarazko azterketa —derrigorrezkoa eta baztertzaila— gainditzen ez badute, edota azterketa gaindituta plaza horiek betetzeko aukerarik gabe geratzen badira —plaza baino pertsona gehiago egoteagatik—, orduan aukera izango dute hautaketa-prozesua derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ez duten plazetan jarraitzeko. Hori gertatuz gero, euskarazko azterketan lortutako kalifikazioa merezimendutzat hartuko da eta oposizio-aldiko derrigorrezko ariketa guztietan lortutako kalifikazioak ere errespetatuko dira.
  - c) Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte, inolaz ere, eskakizuna oinarri hauetan adierazitako eran ziurtatu ez duten hautagaiek bete.

### **Bederatzi. — Hautaketa-prozesuaren gara-pena**

#### **1. Hasiera**

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hilabete bi igaro behar dira, gutxienez, oposizio-aldiko ariketak egiten hasteko. Hala ere, euskarako hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko edota beste hizkuntza batzuetako ezaguerak neurtzeko probak epe hori igaro aurretik egin ahal izango dira, hala jasota badago oinarri espezifikoean.

#### **2. Iragartzea**

Oposizio-faseko lehen ariketaren tokia, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-oholean, eta Interneteko <<http://www.bilbao.eus>> helbidean argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta prozesutik baztertutakoen zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Oposizio gainerako ariketei buruzko hurrengo iragarkiak Udalaren iragarki-oholean eta Interneteko <<http://www.bilbao.eus>> helbidean argitaratuko ditu Epaimahaiak, bai eta, hala dagokionean, probak egin diren lokaletan ere, izangaiak horretaz ohartarazita. Iragarki horiek, gutxienez, hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago jarri beharko dira jendaurrean.

#### **3. Deialdia**

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobetatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengoak egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta epaimahaiak halakotzat jotzen dituenetan izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Borondatezko probak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

#### **4. Jarduteko hurrenkerak**

Hautagaiek Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egingo duen zozketan zehaztutako hurrenkeran jardungo dute, 364/95 Errege Dekretuaren 17. artikuluan eza-



rritakoarekin bat. Zozketan ateratako hizkiaz hasten den abizenik ez badago hautagaien artean, hurrengo hizkia hartuko da kontuan.

#### 5. *Identifikazioa*

Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela-eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzat jotzen duen edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, Atzerritarraren Nortasun Zenbakia...).

#### 6. *Denborak eta baliabideak egokitzea*

Abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuko 8. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen dutenarekin bat etorriz, Epaimahaiak deialdi honetako probak egiteko denborak eta baliabideak beharrezkotzat jotzen duen eran egokitze ahalmena izango du, desgaitasunen bat egiaztatu eta beren eskabidea egiterakoan egoera hori adierazi duten pertsonentzat, egokitzapen horien bidez probaren izaera hutsaldu gabe, betiere, edo probaren eskakizun-maila kaltetu edo murriztu gabe. Zentzu horretan, egokitu diren probak gainerako izangaiak egiten dituztenen parekoak direla bermatu beharko da.

#### 7. *Ariketen arteko tartea*

Oposizioko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxienezko epea 72 ordukoa izango da eta gehienezkoa 45 egunekoa. Hala ere, epaimahaiak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badio. Era berean, hautagaiei ariketak irakurtzeko eska diezaieke; hala bada, irakurraldia jendaurrean egingo da, epaimahaiak adierazitako egunean eta orduan, beti ere, 48 ordu lehenago jakinarazita.

### **Hamar. — Hautaprobeen kalifikazioa**

#### 1. *Emaitzak argitaratzea*

Ariketa bakoitzaren puntuazioak Udalaren iragarki-oholean eta Interneteko <<http://www.bilbao.eus>> helbidean dagozkien iragarkia jarriz jakinaraziko dira jendaurrean, Epaimahaiak kalifikazioa erabaki eta hurrengo 24 orduen barruan.

#### 2. *Oposizio-faseko ariketen kalifikazioa*

Oposizioko ariketa bakoitzaren kalifikazioak, oro har, honela ezarriko dira: Epaimahaiko kideek emandako puntuazioak batuko dira; batuketa horren emaitza epaimahaikide-kopuruaz zatituko da, eta zatidura hori izango da haietako bakoitzaren behin betiko kalifikazioa. Hala eta guztiz ere, Epaimahaiak kalifikaziorik handiena eta txikiena baztertzea erabaki ahalko du, edo, hala gertatzen denean, errepikatu egiten diren halako kalifikazioetako bat, gainerako kideek emandako kalifikaziotik gehiegizko desbideratzea dagoela antzematen denean, kalifikazio globalean homogeneotasun handiagoa lortzearen, horrela.

#### 3. *Merezimenduak balioestea lehiaketa-aldian*

- a) Oposizio-aldia gainditzen dutenek, epe jakin bat edukiko dute -deialdiaren oinarri espezifikoean ezarritakoa- euren merezimenduak ziurtatzeko agiriak aurkezteko. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko azken egunera arteko merezimenduak hartuko dira kontuan.
- b) Lehiaketa-aldiko merezimenduak balioesteko (betiere oposizio-aldia gaindituz gero) batu egingo dira deialdiko oinarri espezifikoei baremoen arabera esleitu-tako puntuak. Hala ere, zati honetako puntuazioa, gehienez ere, oposizio-aldian lor daitekeen puntuazioaren %45 izango da.

#### 4. *Azterketak berrikustea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioak*

Oro har, hiru egun baliodun egongo dira -epaimahaiaren erabakia argitaratzen den egunetik aurrera- azterketak berrikusteko eskatzeko edota azterketetako kalifikazioei bu-



ruzko erreklamazioak aurkezteko. Hala ere, hori ez da eragozpen izango epaimahaiaren jarduna aurkaratzeari buruz Zazpigarren Oinarrian ezarritakoa aplikatzeko.

5. *Azken kalifikazioa eta hautagaien hurrenkera*

- a) Hautaketa-prozesuaren amaierako kalifikazioa lortzeko, batu egingo dira oposizio-aldian (ariketa guztietako puntuen batura) eta, hala bada, lehiaketa-aldian (merezimendu guztietako puntuen batura) eskuratutako puntuak. Azken kalifikazioak erabakiko du hautagaien hurrenkera.
- b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarraren 6/1989 Legearen 27.2 artikularekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikularekin bat etorruta, gaitasun berdina duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien % 40 baino gutxiago emakumeak direnean, eta alderantziz. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagai batzuk neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean -nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.
- c) Hala ere berdinketa apurtu ez bada, irizpide hauek erabiliko dira hurrenkera ezartzeko: lehenengoa, oposizio-aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde; bigarrena, Bilboko Udalaren zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrena, EAEko administrazio publikoen zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde; laugarrena, beste administrazio publiko batzuen zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde eta, azkena, adinez nagusia denaren alde.
- d) Oposizio-aldia baino ez duten hautaketa-prozesuetan, berdinketa egonez gero, eta b) atalean ezarritakoa kontuan hartuta berdinketa apurtu ez bada, oposizio-aldiko ariketa guztiak gainditu dituztenen artean, irizpide hauek erabiliko dira hurrenkera ezartzeko: lehenengoa, azken-aurreko ariketan puntu gehien lortu dituenaren alde; bigarrena, aurreko ariketan puntu gehien lortu dituenaren alde eta horrela, hautaketa-prozesuko lehenengo ariketa gainditu dutenen zerrenda atera arte.

**Hamaika. – Probak gainditu dituztenen zerrenda**

1. *Ariketak gainditu dituzten pertsonen zerrenda argitaratzea*

Oposizio-faseko ariketa bakoitzaren zuzenketa bukatzen denean, Epaimahaiak hurrengo zerrendak argitaratuko ditu, dagozkien kalifikazioekin batera, Bilboko Udalaren iragarki oholean eta Bilboko Udalaren webgunean ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)):

- Probak gainditu dituzten barne-igoerako txandakoen zerrenda.
- Probak gainditu dituzten eta desgaitasuna duten pertsonen txandakoen zerrenda.
- Probak gainditu dituzten gainerako izangaien zerrenda.

2. *Aukeratutako pertsonen zerrenda*

- a) Hautaketa-prozesuko oposizio-aldiko eta, egonez gero, lehiaketa-aldiko kalifikazioak emanda, epaimahaiak aukeratutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, lortutako puntuazioaren arabera. Zerrendako pertsonen kopurua ezin da izan deitutako plaza-kopurua baino handiagoa, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 32. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta. Era berean, zerrenda Udalburuari bidaliko zaio, izendapenen proposamena egin dezan. Era berean, azken saioko akta bidaliko zaio, hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren araberrakoa). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik, ez beste ezertarako. Hala ere, zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, ez eta lanpostuaz jabetzekoa ere.
- b) Zerrenda bi egingo dira: bat, hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko duten plazeekin eta bestea, derrigorrezkoa ez duten plazeekin.



- c) Lehen ere aipatu dugunez, hautaketa-prozesuan trataera desberdina emango zaie txanda libreko hautagaiei eta minusbaliatuen txandakoei, onartutakoen zerrendei, ariketetarako deiei eta gainditutakoen zerrendei dagokienez. Hala ere, prozesua amaitutakoan zerrenda bakarra egingo da, eta bertan bilduko dira hautaketa-proba guztiak gainditu dituzten hautagaiak, lortutako puntuazioaren arabera, zein txandakoak diren kontuan hartu gabe; salbuespena izango da barne sustapeneko txandakoa izatea, horiek euren zerrenda izango dute-eta. Zerrenda hori erabakigarria izango da destinoak eskatzeko eta esleitzeko.
- d) Minusbaliatuen txandako plazak ez badira txanda libreko deialdian betetzen, eta berdin barne sustapeneko deialdietan, beste txandetako plazei gehituko zaizkie.
- e) Barne sustapeneko plazak betetzen ez badira, plaza horiek txanda libreko deialdiko plazei gehituko zaizkie.
- f) Deitutako plaza kopurua handitu ahalko da, dagokion deialdiaren ostean onartutako enplegu publikoko eskaintzetan dauden lanpostu hutsen arabera, baldin eta oinarri espezifikoei hala agintzen badute. Plaza kopuruaren gehikuntza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, alkate-udalburuaren ebazpenaren bidez; horietatik hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plaza zenbat diren adierazi beharko da eta gainditutakoen zerrenda argitaratu aurretik (oinarri honetako 1. puntua) argitaratu beharko da.

### 3. *Lan-poltsak*

Hautaketa-prozesua gain-ditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendak bitarteko funtzionarioak izendatze-ko erabili ahal izango dira, indarrean dagoen araudian aurreikusten diren kasuetan, eta Udalarai aldi baterako zerbitzuak emateko erabiltzen diren lan-poltsak osatzeko. Deialdirako aukeraturako pertsonen euren lanpostuak jabetzan hartu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean zerrenda horiek.

### 4. *Epaimahaiaren erabakiak*

Epaimahaiaren erabakiak lotesleak izango dira izendapena egiteko ardura duen organoarentzat; hala ere, hori ez da eragozpen izango organo horrek kalifikazioak berrikusteko, indarrean dagoen Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.

#### **Hamabi. — Agiriak aurkeztea**

##### a) *Agirien zerrenda*

Probak gainditu dituztenen zerrenda argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, 20 eguneko epearen barruan, funtzionario izateko proposaturiko izangaiak hautaketa-prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte Udaleko Giza Baliabideen Antolaketa eta Kudeaketa Sailean. Hauek, alegia:

1. Behar bezala konpultsaturiko NANaren fotokopia edo dagokion Erregistro Zibilak luzaturiko jaiotza-ziurtagiria.
2. Adierazpena, eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabetuta ez dagoela eta inongo herri-administrazioetako zerbitzutik diziplina-espeditente bidez berezita ez dagoela jasotzen duena.
3. Adierazpena, Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen inolako kausatan sartuta ez dagoela jasotzen duena.
4. Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea. Udalaren medikuek egiaztatuko dute, betiere Baztertzeko Baremoaren arabera (udal-batzarrak 1987ko irailaren 24ko bileran onartutakoa); horretarako, azterketa medikoa eta behar diren proba mediko guztiak egingo zaizkie, Baztertzeko Baremoarekiko egokitasuna egiaztatzeko (hautaketa-prozesu osoan). Medikuen egiaztagirien aurka eginez gero, hautagaiak onartu egingo du medikuen txostenak bidaltzeko oinarri izan dire-



nak- erreklamazioa aztertuko duten organoen eskueran jartzea, hautagaiaren ohorerako eskubidea ukitzen dutenean izan ezik. Minusbaliotasunen bat duten hautagaiak, gainera, beteko dituzten lanpostuetan aritzeko gaitasuna badutela adierazten duen agiria aurkeztu beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren Minusbaliatuen Oinarrizko Zentroak emana.

5. Plaza bakoitzera sartzeko eskatzen dena, hau da, tituluaren fotokopia konpultsa-tua, edo titulua eskuratzeko eskubideen ordainagiria, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 43. artikulua araberak; tituluok deialdiaren oinarri espezifikotik zehaztutakoak dira.
6. Deialdi bakoitzerako baldintza espezifikotik agiriaren bidez benetakotzea.
7. Argazki bi, NANekoaren neurrikoak.

b) *Funtzionarioak*

Hautagaiak edozein administrazio publikotako funtzionarioak izanez gero, ez dituzte aurkeztu beharko aurreko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak; horrelakotik, euren egoeraren eta zerbitzu-orrietan azaltzen diren gorabeheren egiaztagiria aurkeztu behar dute. Egiaztagiri horiek ministerio, toki-erakunde edo organismo publikoak egingo ditu, noren menpe dauden.

c) *Epea ez betetzea*

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak aurkezten ez dituzten oposiziotik, edo agiriak aztertuta edo medikuen azterketaren ondorioz ikusten bada baldintzetakoren bat ez dutela betetzen, deialditik kanpo geratuko dira eta beraz, ezin izango dira izendatu. Hori gertatuz gero, baliorik gabe geratuko dira ordura arte egindako jarduketak guztiak eta, gainera, litekeena da erantzukizunik izatea beren gain hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean datu faltsuak agertzeagatik. Horrelakotik, Udalburuak hurrengo hautagaien aldeko izendapen proposamena egingo du, betiere hautaketa-prozesua gainditutako zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera, eta bete gabe geratu diren plaza beste hautagai hautatuko ditu.

Hautaketa-prozesu honetako gainditutako zerrendak baliagarriak izango dira bitarteko funtzionarioak izendatzeko, betiere indarreko arautegietan aurreikusten diren kasuetan, baita beste era batzuetako kontratazioak egiteko ere, egin daitezkeenean.

**Hamahiru.— Izendapena**

1. *Izendapena*

Agiriak aurkezteko epea amaituta, hautagaiak karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario izendatuko dituzte; praktiketako funtzionarioen kasuan, izendapenerako adierazitako egunaren eta lanpostua jabetzan hartuko den egunaren arteko iraupena izango du, karrerako funtzionario izateko praktikaldia edo prestakuntza-ikastaroa gaindituta, hori egin beharra badago.

2. *Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia*

- a) Deialdian ezarrita badago, eta batez ere Udaltzaingoko eta Suteak Itzaltzeko eta Salbamenduko Zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdietan, hautagaiak nahitaez egin behar dituzte prestakuntzako edo hobe-kuntzako ikastaroak: Udalak erabakiko du zer-nolako ikastaroak izango diren eta hautaketa-prozesuko fase-tzat joko dira. Ikastaroak lanpostuaren zereginetarako behar bezala gaitzeko dira eta prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak, biek batera, gehienez ere, legeak ezartzen duen epea iraungo dute. Horrez gain, horiek gainditzen ez badira, deialdiko kalifikatzeko prozeduraren arabera, hautagaia beste barik hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da eta funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.



- b) Hautaketa-prozesuko ikastaldia gai orokorreari eta bereziei buruzkoa izango da. Ikastaldia amaitutakoan edo ikastaldiaren barruan praktikaldia egingo dute izendatutako pertsonak. Ikastaldia eta praktikaldia amaituta, Akademiako edo kasuan kasuko Saileko zuzendariak txostena egingo du, praktiketako funtzionarioak bere plaza betetzeko dituen gaitasunei buruz eta plazak dituen eginkizunetara zer-nola egokitzen den jasoz. Txosten horiek hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari helaraziko zaizkio, eta honek, txostenok aztertutik, prestakuntza fasea gainditu duten ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, fasea gainditu duten hautagaiak izendatzeko proposamena egingo dio Alkate-udalburuari.
- c) Hautagaien izendapena ikastaldiko edo praktikaldiko edozein unetan utzi daiteke bertan behera, betiere hautagaiak gaitasun edo aprobeitxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, Akademiako edo kasuan kasuko saileko zuzendariak proposamena egingo diote hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta honek, txostena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez utzi erabakiko du; hori egin ondoren, erabaki-takoaren proposamena egingo dio Alkate-udalburuari.
- d) Justifikatutako arrazoi barik praktikaldira aurkezten ez direnak praktiketako funtzionario izendatzeari uko egiten diotela ulertuko.
- e) Izendapenak interesdunei jakinarazi, eta iragarki-oholean eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko dira, bai eta Bilboko Udalaren webgunean ere: ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)).

Hautagaien behin betiko izendapena.- Hautagaien behin betiko kalifikazioa eta lehenetsun-hurrenkera ateratzeko, oposizio-aldiko puntuazioari ikastaldiko puntuazioa gehituko zaio; hala ere, gainditzeko, ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Izendapenak izangaiei jakinaraziko zaizkie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

#### **Hamalau. — Lanpostuaz jabetzea eta destinoak esleitzea**

- a) Lanpostuaz jabetzea. Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, behin betiko izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetu eta apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuan eskatzen den baldintza bete behar dute; horretarako, hogeita hamar eguneko epea dute, izendapena jakinarazi zaien egunetik aurrera.

Hala ere, praktiketako funtzionarioen jabetza-hartzea Udalak erabakitako egunetan edo egunetan egingo da.

Ezarritako epearen barruan, justifikatzeko moduko arrazoirik ez badago, lanpostuaz jabetzen ez direnek, karguari uko egin diotela ulertuko da eta bere eskubide guztiak galduko dituzte. Horrelakoetan, Udalburuak hurrengo hautagaien aldeko izendapen proposamena egingo du, betiere hautaketa-prozesua gainditutako zerrendako puntuazio-hurrenkerearen arabera, eta bete gabe geratu diren plaza beste hautagai hautatuko ditu.

- b) Lanpostuei atxikitzea. Giza Baliabideen Antolaketa eta Kudeaketa Sailak atxikiko dizkie hutsik dauden eta betetzeko gaitu diren lanpostuak jabetzan hartu dituztenei, Lanpostuen Zerrendan postu bakoitzerako eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Desgaitasuna duten pertsonen txandan onartutako pertsonen dagokienez, karrerako funtzionario izendatu dituztenean, Bilboko Udalari eskatu ahalko diote, lanpostuei atxikitzerakoan, kontuan har ditzala mendekotasun pertsonaleko arrazoiak, joan-etorrietarako zailtasuneko arrazoiak edo halako pertsonen eragiten dieten antzeko beste arrazoi batzuk.

#### **Hamabost. — Azken arauak**

Erabaki hau zuzenean aurkaratu ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zen-





batzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 112.3 artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluan xedatuta dagoenarekin bat etorritik, administrazio-xedapen orokorra izanik.

Deialdien eta epaimahaien jardunaren ondoriozko administrazio-egintzak aurkaratu egin ahalko dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako kasuetan eta moduan.

Bilbon, 2020ko uztailaren 1ean.—Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko zuzendaria